

# ESTATUTOS / ESTATUTUAK

## CAPITULO I: OBJETO, NATURALEZA Y FINES

### **Artículo 1º**

El Patronato Municipal de Cultura de Zizur Mayor es un Organismo autónomo creado por el Ayuntamiento de Zizur Mayor al amparo de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, para la gestión directa del servicio público de fomento, promoción, difusión, desarrollo y práctica de las actividades culturales, entre las que expresamente se incluyen todas las referentes al Euskera dentro de su término municipal y de la Cendea de Cizur.

Tendrá personalidad jurídica propia, sin perjuicio del control superior establecido en la normativa vigente y en los presentes Estatutos, extinguiéndose la Comisión Informativa Municipal que desarrollaba las funciones que en adelante asume el Patronato.

### **Artículo 2º**

La duración del Patronato será por tiempo indefinido, pudiendo disolverse y quedar extinguido en la forma prevista en los presentes Estatutos.

El Patronato tendrá su domicilio en la Casa de Cultura de Zizur Mayor, con dirección en Parque Erreniega, nº 25.

### **Artículo 3º**

El Patronato está facultado para realizar todos los actos que se encaminen al cumplimiento de los fines señalados en el artículo 1, de los que queda excluido cualquier ánimo de lucro, y en particular para los siguientes:

- a) Solicitar subvenciones, auxilios y otras ayudas de Entidades públicas o privadas, Organismos Oficiales, así como de particulares.
- b) Organizar, conservar, mantener y prestar los servicios del Patronato.

## I. KAPITULUA: XEDEA, IZAERA ETA HELBURUAK

### **1. artikulua**

Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua Zizur Nagusiko Udalak uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen babespean sorturiko organismo autonomoa da, kultur jarduerak sustatu, bultzatu, hedatu, garatu eta gauzatzeko zerbitzu publikoa zuzenean kudeatzeko. Jardueren artean espresuki sartzen dira euskarari dagozkion guztiak bere udalerrian eta Zizur Zendea.

Nortasun juridikoa izanen du, indarrean diren arauetan eta Estatutu hauetan ezarritako goi mailako kontrola eragotzi gabe. Aurrerantzean Patronatuak bere gain hartuko dituen eginkizunak gauzatzen zituen Udal Informazio Batzordea iraungi da.

### **2. artikulua**

Patronatuak iraupen mugagabea izanen du eta Estatutu hauetan aurreikusiriko eran deuseztatua izaten eta iraungita geratzen ahalko da.

Patronatuaren egoitza: Zizur Nagusiko Kultur Etxea. Helbidea: Erreniega parkea, 25.

### **3. artikulua**

Patronatuak 1. artikuluan aipaturiko helburuak betetzera bideraturiko egintza guztiak gauzatzeko ahalmena du, irabazi asmo oro bazter utzita, hauetarako bereziki:

- a) Erakunde publiko edo pribatuen, organismo ofizialen nahiz partikularren diru-laguntzak, sorospenak eta bestelako laguntzak eskatzeko.
- b) Patronatuaren zerbitzuak antolatu, kontserbatu, mantendu eta emateko.

c) Gestionar la distribución y utilización de instalaciones públicas o privadas para el cumplimiento de los fines del Patronato.

d) Contratar el personal técnico necesario para atender los distintos objetivos que se fijen.

e) Proponer al Ayuntamiento de Zizur Mayor la formalización de toda clase de contratos que, no estando incluidos en el apartado anterior, sean necesarios para el cumplimiento de los fines del Patronato.

f) Adquirir, conservar y disponer la utilización de toda clase de materiales, útiles, enseres y bienes necesarios para el cumplimiento de sus fines.

g) Conceder en adelante, según su criterio y disponibilidad económica, todas las subvenciones que en materia de cultura venía concediendo el Ayuntamiento de Zizur Mayor, para lo que elaborará las oportunas convocatorias de ayudas, suscribirá los pertinentes convenios o programará cuanto estime conveniente.

c) Patronatuaren helburuak betetzeko, instalazio publiko edo pribatuen banaketa eta erabilera kudeatzeko.

d) Finkatzen diren xedeak betetzeko beharrezko teknikariak kontratatuzko.

e) Zizur Nagusiko Udalari aurreko atalean sarturik egon gabe Patronatuaren helburuak betetzeko beharrezko diren mota guztietako kontratuak egitea proposatzeko.

f) Bere helburuak betetzeko beharrezko mota guztietako materiala, lanabesak, tresneria eta ondasunak eskuratu eta kontserbatu eta haien erabilera erabakitzeko.

g) Aurrerantzean, bere irizpidearen eta ahalmen ekonomikoaren arabera, Zizur Nagusiko Udalak orain arte kultur alorrean ematen zituen diru-laguntza guztiak emateko eta, horretarako, dagozkion laguntza deialdiak prestatuko ditu, hitzarmen egokiak izenpetuko ditu edo komenigarria deritzon oro programatuko du.

## **CAPITULO II: GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN**

### **Artículo 4º**

El gobierno y administración del Patronato estará a cargo de una Junta Rectora.

La Junta Rectora asumirá el gobierno y gestión superior del Patronato y estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: El Alcalde del Ayuntamiento o Concejales en quien él delegue.

b) Vocales:

- Un concejal de cada grupo político con presencia en el Ayuntamiento de Zizur Mayor, que figurará como TITULAR. Además cada Grupo Político podrá nombrar un representante que figurará como SUPLENTE, con derecho a voz y voto. De esta manera, tanto el concejal como el representante podrán acudir indistintamente a las Sesiones de la Junta del Patronato con idénticos derechos y deberes.

## **II. KAPITULUA: GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOA**

### **4. artikulua**

Patronatuko gobernu eta administrazioa zuzendaritza batzorde baten esku egondak.

Zuzendaritza Batzordeak Patronatuaren gobernu eta goi mailako kudeaketa hartuko du bere gain eta kide hauek izanen ditu:

a) Presidentea: Udaleko alkatea edo horrek eskuordetzen duen zinegotzia.

b) Batzordekideak:

- Zizur Nagusiko Udalean diren talde politikoetako zinegotzi bana, TITULAR gisa agertuko dena. Gainera, talde politiko bakoitzak ORDEZKO gisa agertuko den eta hitza eta botoa izanen dituen ordezkari bat izendatzen ahalko du. Horrela, bai zinegotzia bai ordezkaria, zein edo zein, joaten ahalko dira Patronatuko Batzordearen bilkuretara eskubide eta eginbehar berberak izanik.

- Un representante del Ayuntamiento de la Cendea de Cizur que será designado por el Pleno del mismo.

- Tres vecinos de Zizur Mayor relacionados con el hecho cultural de la localidad, que formen parte de cualquiera de las Agrupaciones Socio-Culturales en Zizur Mayor, que se hallen inscritas en el Registro Municipal como Entidades Socio-Culturales. Serán designados en la forma que consideren oportuno entre ellas.

c) De entre estos Vocales, la Junta elegirá al Vicepresidente del Patronato.

d) Además, y como asesores de la Junta Rectora, actuarán con voz pero sin voto, el Coordinador Cultural y el Técnico de Euskera.

e) Secretario: Actuará como tal el Coordinador Cultural del Ayuntamiento de Zizur Mayor. Si la Junta Rectora lo estimara conveniente, pudiera recaer dicho cargo en algún miembro de la misma. El Secretario, además de las funciones que le encomienden el Presidente y la Junta, llevará un libro de Actas en el que registrará todos los acuerdos que se adopten en las reuniones de la misma, conservará los documentos y expedientes propios del archivo y cuidará la tramitación de los acuerdos adoptados.

f) Tesorero-Administrador: Recaerá esta función en el equipo socio-cultural del Ayuntamiento de Zizur Mayor, bajo la responsabilidad del Secretario de la Junta Rectora.

### **Artículo 5º**

Todos los componentes de la Junta Rectora se renovararán en sus cargos cuando se renueve la Corporación del Ayuntamiento de Zizur Mayor. No obstante, la renovación parcial de representantes se producirá, de la misma forma prevista para su designación, cada vez que, por cualquier motivo, se produzcan una o más vacantes.

- Zizur Zendeako Udalaren ordezkari bat, horko Udalbatzak izendatua.

- Zizur Nagusiko kultur gertaerarekin erlazonaturiko bertako hiru bizilagun, Zizur Nagusikoak izanik bertan diren erakunde soziokulturalen Udal Erregistroan izena emanda dauden elkarte soziokulturaletako edozeinetako kide. Elkartek egokitzat jotzen duten eran izendatuko dituzte.

c) Batzordekide horietatik Patronatuko presidenteordea aukeratuko du Batzordeak.

d) Gainera, eta Zuzendaritza Batzordearen aholkulari gisa, hitza bai baina botorik izan gabe, Kultur koordinatzailea eta Euskara teknikaria ariko dira.

e) Idazkaria: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur koordinatzailea izanen da. Zuzendaritza Batzordeak komenigarria iritiz gero, kargua bere kideren bati egokitzen ahalko lekiok. Idazkariak, presidenteak eta Batzordeak agintzen dizkieten eginkizunez gain, horren bileretan hartzen diren erabaki guztiak erregistratuko dituen akta liburua izanen du, artxiboko dokumentu eta espedienteak kontserbatuko ditu eta harturiko erabakien izapidea zainduko du.

f) Diruzain-administratzailea: Eginkizun hau Zizur Nagusiko Udaleko talde soziokulturalarena izanen da, Zuzendaritza Batzordeko idazkariaren erantzukizunaren pean.

### **5. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak Zizur Nagusiko Udalbatza berritzen denean berrituko dira. Hala ere, ordezkarien berrikuntza partziala, izendapenerako aurreikusiriko era berean, edozein zirengatik postu hutsen bat geratzen den bakoitzean gertatuko da.

## **Artículo 6º**

Corresponden a la Junta Rectora las siguientes funciones:

- a) Aprobar los programas de actuación y sus revisiones anuales.
- b) Elaborar anualmente, antes del final de cada ejercicio, el presupuesto de actuación del Patronato en el ejercicio siguiente que regirá con el año natural, para su aprobación por el Pleno del Ayuntamiento y posterior inclusión en el presupuesto ordinario del mismo.
- c) Proponer al Ayuntamiento la aprobación de programas, presupuestos y la formalización de los contratos que, siendo necesarios para el cumplimiento de los fines del Patronato, sean de la competencia municipal.
- d) Adoptar medidas adecuadas para la mejor organización y funcionamiento del servicio gestionado por el Patronato.
- e) Presentar anualmente al Ayuntamiento de Zizur Mayor, dentro del primer trimestre natural, una memoria sobre la actuación del Patronato durante el ejercicio con su correspondiente cierre de cuentas y balance elaborados conforme a la contabilidad municipal.
- f) Ejercer la gerencia del Patronato que, como mínimo, supondrá vigilar la ejecución de los programas de actuación, controlar la realización de los presupuestos aprobados y elaborar y aprobar la memoria y cierre de cuentas a presentar al Ayuntamiento.
- g) Contratar colaboraciones, prestación de servicios e incluso personal laboral, para el cumplimiento de los fines del Patronato, siempre que no se trate de contrataciones de competencia municipal
- h) Establecer el Régimen de Sesiones y las Normas de Funcionamiento Interno.

## **Artículo 7º**

La Junta Rectora se reunirá y celebrará sesión ordinaria al menos una vez al mes. También celebrará sesión extraordinaria por decisión del Presidente o a petición de un tercio de sus miembros de derecho. Las convocatorias deberán cursarse con una antelación mínima de 48 horas, salvo en casos urgentes que deberán ser justificados, y a ella se unirá el orden del día.

## **6. artikulua**

Eginbehar hauek izanen ditu Zuzendaritza Batzordeak:

- a) Jarduteko programak eta horien urteko berrikuspenak onestea.
- b) Urtero, ekitaldi bakoitza bukatu baino lehen, Patronatuak hurrengo ekitaldian, zeinek urte naturalaren iraupena izanen baitu, izanen duen jardun aurrekontua prestatzea Udalbatzak onesteko eta gero haren ohiko aurrekontuan sartzeko.
- c) Udalari programa eta aurrekontuen onespina eta Patronatuaren helburuak lortzeko beharrezkoak izanik udal eskumenekoak diren kontratuak egitea proposatzea.
- d) Patronatuak kudeaturiko zerbitzuaren antolakuntza eta funtzionamendurik hobereenerako neurri egokiak hartzea.
- e) Zizur Nagusiko Udalari urtero, lehen hiruhilabete naturalaren barnean, Patronatuak ekitaldian izan duen jardunari buruzko memoria aurkeztea dagozkion kontu itxiera eta balantzea barne, udal kontabilitatearen arabera eginda.
- f) Patronatuaren gerentzia gauzatzea, hau da, jardun programen gauzapena zaindu, onetsiriko aurrekontuen gauzapena kontrolatu eta Udalari aurkeztu beharreko memoria eta kontu itxiera prestatu eta onestea behintzat.
- g) Kolaborazioak, zerbitzu emateak eta are lan-kontratudunak kontratatzea Patronatuaren helburuak lortzeko, baldin eta udal eskumeneko kontratazioak ez badira.
- h) Bilkuren Erregimena eta Barne Funtzionamendurako Arauak ezartzea.

## **7. artikulua**

Zuzendaritza Batzordea hilean behin gutxienez elkartuko da eta eginen du ohiko bilkura. Eta ezohiko bilkura eginen du presidentek erabakita edo zuzenbidezko kideen heren batek eskatuta. Deialdiak, eguneko aztergaiak gehituta, 48 ordu lehenago gutxienez egin beharko dira, justifikatuak izan beharko diren premiazko kasuetan izan ezik.

### **Artículo 8º**

El orden del día de las sesiones será fijado por el Presidente de la Junta Rectora a propuesta de sus miembros, salvo en el caso de las sesiones extraordinarias convocadas a petición de un tercio de sus miembros en que se incluirá el orden del día que indiquen los solicitantes de su celebración.

### **Artículo 9º**

La Junta Rectora se reunirá en primera convocatoria cuando concurren, como mínimo, la mitad más uno de sus miembros de derecho, incluido el Presidente o quien reglamentariamente le sustituya.

En caso de no haber quórum suficiente, se reunirán en segunda convocatoria media hora después de la señalada para la primera si asistiesen un tercio de los miembros de derecho.

### **Artículo 10º**

Para la válida celebración de las Sesiones es necesaria la asistencia del Presidente o de quien legalmente le sustituya y del Secretario, que deberá levantar Acta de los acuerdos que se adopten.

### **Artículo 11º**

Los acuerdos de la Junta Rectora serán válidos siempre que se adopten por mayoría simple de los asistentes. A este efecto, se dirimirán los empates registrados en la votación con el voto de calidad del Presidente si, efectuada una segunda votación para deshacer el empate inicial, éste persistiera.

### **Artículo 12º**

El Presidente del Patronato ostenta la representación del mismo y de su Junta Rectora, correspondiéndole, así mismo, convocar, presidir, suspender y levantar las sesiones de la misma.

Corresponde, por tanto, al Presidente la firma de la documentación emanada desde el Patronato y, además, la autorización de pagos y el control de la ejecución de los acuerdos de la Junta Rectora.

### **8. artikulua**

Bilkuretako eguneko aztergaiak Zuzendaritza Batzordeko presidentek erabakiko ditu kideek proposatu ondoren, kideen heren batek eskatuta iragarriko ezohiko bilkuren kasuan izan ezik, zeinetan egiteko eskatu dutenek aginduriko eguneko aztergaiak sartuko baitira.

### **9. artikulua**

Zuzendaritza Batzordea zuzenbidezko kideen erdiak gehi kide bat, presidentea edo araudiaren arabera ordezten duena barne, gutxienez agertzen direnean bilduko da lehen deialdian.

Quorum aski egon ezean, lehenengorako adieraziriko ordua baino ordu erdia geroago bilduko da bigarren deialdian zuzenbidezko kideen heren bat agertzen bada.

### **10. artikulua**

Bilkurak baliodunak izateko, beharrezkoa da bertan izatea presidentea edo legalki ordezten duena eta idazkaria, zeinek hartzen diren erabakien akta idatzi beharko baitu.

### **11. artikulua**

Zuzendaritza Batzordearen erabakiak bertan direnen gehiengo sinpleaz hartzen direnean izanen dira baliodunak. Horretarako, botazioan izaniko berdinketak presidentearen kalitateko botoak erabakiko ditu hasierako berdinketa desegiteko bigarren botazioa eginda horrek jarraitzen badu.

### **12. artikulua**

Patronatuko presidentea da horren eta bertako Zuzendaritza Batzordearen ordezkaria eta hari dagokio, halaber, horren bilkurak iragarri, haietako buru izan eta bilkura bertan behera utzi eta bukatzea.

Hortaz, Patronatuak emaniko dokumentazioa sinatzea eta, gainera, ordainketak baimentzea eta Zuzendaritza Batzordearen erabakien gauzapena kontrolatzea dagozkio presidenteari.

### **Artículo 13º**

El Vicepresidente sustituirá al Presidente y asumirá sus atribuciones en los casos de vacante, ausencia o enfermedad. Además, ejercerá las funciones que le delegue el Presidente por escrito, dando cuenta de ello a la Junta Rectora.

## **CAPITULO III.- RECURSOS ECONÓMICOS**

### **Artículo 14º**

La financiación para el cumplimiento de sus fines y todos los gastos que se produzcan, se efectuará a través de sus medios económicos que consistirán en:

- a) La aportación económica que el Ayuntamiento de Zizur Mayor destine cada año para el Patronato desde su Presupuesto Ordinario.
- b) Las subvenciones, auxilios y ayudas que reciba de Entidades públicas o privadas, Organismos Oficiales, así como de particulares.
- c) Por todos los ingresos que puedan reportar sus actividades específicas.
- d) Por donaciones, legados y usufructos que se otorguen a su favor.

### **Artículo 15º**

Los ingresos y gastos del Patronato serán intervenidos y contabilizados por el tesorero-administrador conforme a los criterios y forma de la contabilidad municipal.

### **Artículo 16º**

El Patronato elaborará un inventario de todos los materiales, útiles, enseres y bienes a su cargo, que deberá ser actualizado anualmente, con expresa indicación de aquellos que sean propiedad exclusiva del Patronato por haber sido adquiridos con sus propios medios económicos.

El Patronato responderá de la buena conservación del patrimonio inventariado, responsabilizando de ello a terceros que por cualquier motivo tuvieran contacto condicho patrimonio.

### **13. artikulua**

Presidenteordeak presidente postua hutsik edo titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean ordeztuko du eta hartuko ditu haren eskudantziak bere gain. Horrez gain, Presidenteak idatziz bere esku utziko dizkion eginkizunak beteko ditu eta Zuzendaritza Batzordeari emanen dio horren berri.

## **III. KAPITULUA.- EKONOMIA BALIABIDEAK**

### **14. artikulua**

Bere helburuak betetzeko eta sortzen diren gastu guztietarako finantziazioa bere ekonomia baliabideen bitartez lortuko da; hauek dira baliabideok:

- a) Zizur Nagusiko Udalak Patronatuarentzat bere ohiko aurrekontutik urtero bideratuko duen ekarpen ekonomikoa.
- b) Erakunde publiko edo pribatuetatik, organismo ofizialetatik nahiz partikularrengandik jasoko dituen diru-laguntzak, sorospenak eta bestelako laguntzak.
- c) Bere jarduera espezifikoek ematen dizkieten diru-sarrera guztiak.
- d) Bere alde emanen diren dohaintza, legatu eta gozamenak.

### **15. artikulua**

Diruzain-administratzaileak Patronatuaren diru-sarrerak eta gastuak kontabilizatu eta horien kontu-hartzailtza egingen du, udal kontabilitatearen irizpideen eta eraren arabera.

### **16. artikulua**

Patronatuak bere ardurapeko materialen, lanabesen, tresneriaren eta ondasunen inbentarioa egingen du, urtero eguneratu beharrekoa, bere ekonomia baliabideez eskuratuak izateagatik Patronatuaren jabetza eskusibokoak direnak espresuki adierazirik.

Patronatua izanen da inbentariaturiko ondarearen kontserbazioaren erantzule ondare horrekin edozein arrazoiengatik kontaktua luketen hirugarrenak arduraraziz.

## **CAPITULO IV.- PERSONAL**

### **Artículo 17º**

El Patronato dispondrá del personal necesario para el cumplimiento de sus fines, tanto en régimen de colaboración, arrendamiento de servicios o contratación laboral, determinando su número, categoría y funciones en la plantilla que deberá ser aprobada por la Junta Rectora. Las gratificaciones, becas y retribuciones del personal deberán figurar en el Presupuesto del Patronato.

### **Artículo 18º**

El personal que preste su aportación en régimen de colaboración, voluntaria y desinteresadamente, podrá percibir del Patronato un reconocimiento a su labor mediante la concesión de gratificaciones o becas.

### **Artículo 19º**

El personal que preste sus servicios en arrendamiento cobrará la cantidad que se estipule en el contrato que se fomalice al efecto.

### **Artículo 20º**

El personal laboral contratado por el Patronato quedará sometido a las disposiciones laborales y de previsión social, sin conferir derecho alguno a adquirir la condición de empleado municipal.

### **Artículo 21º**

Inicialmente, el Ayuntamiento destinará a la prestación del servicio gestionado por el Patronato el personal laboral siguiente:

- Un Coordinador Cultural.
- Un Técnico de Euskera.
- Dos Titulados de grado medio.
- Dos Auxiliares Administrativos.

Este personal no estará destinado en exclusiva, al Patronato por lo que compartirá su trabajo en el mismo con otros a los que sea destinado por el Ayuntamiento.

## **IV. KAPITULUA.- LANGILEAK**

### **17. artikulua**

Patronatuak bere helburuak betetzeko beharrezko langileak izanen ditu, bai lankidetzara araubidean bai zerbitzu errentamendu bai lan kontratazio araubidean, eta Zuzendaritza Batzordeak onetsi beharko duen plantillan haien kopurua, kategoria eta egin-beharrak zehaztuko dira. Langileen haborokin, beka eta ordainsariak Patronatuaren aurrekontuan agertu beharko dira.

### **18. artikulua**

Beren ekarpena lankidetzara araubidean, boluntario eta eskuzabalki, egiten duten langileek haborokin edo beka hartuz jasotzen ahalko dute Patronatuak beren lanari eginiko aitortpena.

### **19. artikulua**

Zerbitzuak errentamenduan ematen dituzten langileek horretarako eginen den kontratuan finkaturiko kantitatea kobratuko dute.

### **20. artikulua**

Patronatuak kontratatutako langileak lan eta gizarte aurreikuspen alorretako xedapenen mende egonen dira eta horrek ez die udal enplegatu izaera lortzeko inolako eskubiderik emanen.

### **21. artikulua**

Hasiera batean, Udalak langile hauek bideratuko ditu Patronatuak kudeaturiko zerbitzua egitera:

- Kultur koordinatzaile bat.
- Euskara teknikari bat.
- Erdi mailako bi tituludun.
- Bi administrazio-laguntzaile.

Langile horiek ez dira Patronaturako eskusiboki ariko eta bere lan denbora horretako lanean eta Udalak aginduko dion beste zenbaitetan banatuko du.

El Ayuntamiento destinará además, esporádicamente, otro personal laboral para la realización de trabajos puntuales que sean necesarios para el cumplimiento de los fines del Patronato, siendo imprescindible la previsión de los mismos con la antelación suficiente para que no distorsione el normal desarrollo de los trabajos ordinarios en el Ayuntamiento

## **CAPITULO V.- DISOLUCIÓN Y EXTINCIÓN**

### **Artículo 22º**

El Patronato podrá ser disuelto por el Pleno del Ayuntamiento de Zizur Mayor:

- a) A propuesta de la Junta Rectora.
- b) A propuesta del Ayuntamiento, previa audiencia de la Junta Rectora.

En ambos casos, adoptando el acuerdo por mayoría absoluta.

Al disolverse el Patronato, los bienes adscritos al mismo perderán su afectación con plena disponibilidad de aquellos por parte del Ayuntamiento. De igual forma, los bienes propiedad exclusiva del Patronato pasarán a propiedad del Ayuntamiento en caso de disolución.

Zizur, Octubre de 1995

Udalak, horietaz gain, Patronatuaren helburuak betetzeko beharrezko lan puntualak egiteko lan-kontratadun gehiago bideratuko ditu, noizbehinka, eta lan horiek nahiko aurrerapenaz aurreikustea ezinbestekoa izanen da, Udaleko ohiko lanen gauzaper normala desoreka ez dezaten.

## **V. KAPITULUA.- DEUSEZTAPENA ETA IRAUNGIPENA**

### **22. artikulua**

Patronatua Zizur Nagusiko Udalbatzak deuseztatzen ahalko du:

- a) Zuzendaritza Batzordeak proposatuta.
- b) Udalak proposatuta, Zuzendaritza Batzordea entzun ondoren.

Bi kasuotan, erabakia gehiengo osoz hartuko da.

Patronatua deuseztatzean, atxikiriko ondasunek beren lotura galduko dute eta Udalak izanen du erabat haiek erabiltzeko aukera. Era berean, Patronatuaren jabetza eskusiboko ondasunak Udalarenak izatera pasatuko dira deuseztapen kasuan.

Zizur, 1995eko urria